

Eskualdeko garapen agentzia sortzeko eskaera egin dute Udalek

Datozen asteetan Buruntzaldeko sei herrietan garapen agentzia sortzeko proposamenak egingo dituzte.

Historikoki aukera paregabe baten aurrean gaude, orain dela bi urte ereindako hazitik sagarrondo eder bat jaio baita. Gure sagardotegi propioa sortzeko sagarrondo, eta sagarrari ahalik eta zuku gehien ateratzeko eta anbizio handiko proiektuak gauzatzeko tresna. Guztion artean sortutako sagardotegi propio hori izango da gaur gure eskualdeko udalerrietan ordezkarien bidez proposatzen dizuegun garapen integraleko agentzia berria. Datozen



Eskualdeko alkateek garapen agentziaren aldeko agerraldia egin zuten.

asteetan udaletara eramango dugu proposamena, sustengua eman diezaioten eta hartara Buruntzaldeko garapen sozioekonomikoari, etorkizun berri

bati, ateak irekitzeko moduan egon gaitezten". Hitz horiekin Hernaniko alkate Luis Intxauspek eskualdeko sei udalerriek bi urteetan egindako lana gauzatzeko

ar dagoela adierazi zuen. Eskualdeko Udal ordezkarien izenean hitz egin zuen, eta bere hitzei erreparatuta, eskualdeko garapen ekonomikorako agentzia sortzeko gogo bizia dute. Izan ere, Gipuzkoa osoan agentziarik ez duen eskualde bakarra da Buruntzaldekoa.

2012ko maiatzetik hona agentzia sortzeko pausoak eman dituzte. Dagoeneko eskualdean erakunde ezberdinen artean enplegua sustatzeko milioi bat euro erabiltzen dira eta hori agentzia sortzeko nahikoa datu adierazgarria dela diote. "Baliagarria izango litzateke etorkizunera begira proiektu handiagoak prestatzeko ere, inguruko enpresetan berrikuntzak egiteko edota eskualdeko enpresak nazioartekotzen laguntzeko".

[ESKUALDEA, 7. ORRIALDEA]



Mikel Garaialde eta Julen Gabirondo.

Etxekoak nagusi sega desafioan

Auzo gutxi izango da Euskal Herrian herri kirolei hainbeste tarte eskaintzen dienik. Xoxokan desafio ugari izan da egunotan, horien artean segakoa. Auzotarrak izan ziren garaile, oraingoan.

[URNIETA, 4. ORRIALDEA]

Balkoi eta erakusleiho onenak



On Biziko kideak eta haiekin batera saritutako herritarrak eta dendariak.

Urnietako Sanmielak igaro eta gero, On Bizi elkarte epaimahaiak aditzera eman ditu III. erakusleiho eta balkoien lehiaketako sarituak. Udalak On Biziri utzi dion lokalean bertan bildu ziren merkatarien elkarteak kideak eta sarituak. Atal bakoitzeko bina sari banatu zituzten, eta sari modura erosketak txartelak edota afariak. On Bizikoak pozik agertu ziren lehiaketarekin eta dagoeneko

urte amaierako eta Egu-berrietako hitzorduak prestatzen hasi dira.

Sanmieletako lehiaketari dagokionez, erakusleiho onenaren saria Leo ileapaindegia irabazi zuen. Bigarren saritua Gaztelo gozotegia izan zen.

Balkoiei dagokionez, berriz, Belen Izagirre izan zen irabazlea. Bigarren sailkatu ziren Gautena elkarteak kideak.

[URNIETA, 2. ORRIALDEA]

Gotzon Huizi Lasa eta Zabala filmean

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

Ikasturte berria
ludotekan

Astelehenetik ostegunera, 17:00-19:00
Arantzubin

943 008 033 ludoteka@urnieta.org

Urriaren
20tik
azaroaren
6ra



Sanmioletako III. balkoi eta erakusleihu lehiaketa



On Bizi elkarteak Sanmioletan modu askotara parte hartu du. Besteak beste, balkoi eta erakusleihu lehiaketa antolatuz. Aurreko ostegunean lehiaketan irabazleak elkartu zituen, sari banaketari ekiteko. Lehiaketaren atal bakoitzeko bina lagun saritu zituzten.



Erakusleihu onenari lehen saria: Leo ileapaindegia. Saria: Spa saioa eta bi laguntzako afaria.



Erakusleihu onenari bigarren saria: Gaztelu gozotegia. Saria: 100 euroko erosketa txartela.



Balkoi onenari lehen saria: Belen Izagirre. Saria: Tablet bat.



Balkoi onenari bigarren saria: Gautena. Saria: 100 euroko erosketa txartela.

Atsegindegi plaza txiki geratu zen aurreko larunbatean

Pausoka eguna, jendetsua

Aparretan daude Pausoka elkarteak, Sanmioletan txosna eremuan jasotako erantzuna paregabea izan zen. Eta, gutxira, Hernanin lehen Pausoka eguna ospatu zuten. Une gozoa bizi dute, eta gauzak ondo ateratzen direnean bigarren mailan geratzen da atzeko lan isil guzti hori. Izan ere, borondatezko lana egin zutenak askotxo izan ziren horrelako egunpasa antolatzeko. Pausoka elkarteak hunkituta daude eta hedabideetara esker ona igorri dute: "Eskertuta eta hunkituta gaude. Hernaniko Udalak eta gainerako erakundeak, ikuskizunetan eta tailerretan parte hartu dutenak, bazkarirako elikagaiak eman dizkiguten enpresak eta lan eta lan aritu ziren gertuko pertsonak..., horiei guztiei gure eskerrik beroena".

Parte hartze handia izan zen egun osoan zehar eta horri esker Pausokak helburu bikoitza bete duela diote. Lehena, elkarte indartzeko dirua biltzea. Eta horri lotuta, elkarte bera ezagutzera ematea.

Antolatzaileek emandako datuen arabera, Porrotx eta Ane Pirata ikuskizunaren 1.100 sarrera saldu ziren eta paella jaterako 560 txartel. Lauroba taldearen kontzertua iristerako Atsegindegi plaza jendez gainezka zegoen.

Elkarteak adierazi duenez, egun osoko balorazioa egin eta gero, bildutako diruaren berri emango dute eta baita zertara bideratuko duten Pausoka egunean jasotako diru guztia.



Paella jaterako 560 txartel saldu zituzten.



Buruntzantzan taldeak saioa eskaini zuen Hernaniko kaleetan.



Dantza eta ballet ikuskizun paregabea eskaini zuen Verdini dantza taldeak.

Kultur, kirol eta euskara mailako elkarteak

Udalaren eta eragileen arteko hitzarmenak

Urnietako Udalak azken egunetan herriko hainbat elkarteekin diru-laguntzak emateko hitzarmenak sinatu ditu. Hauek izan dira: Egape dantza taldea, Aukeran, Aurrera Gure Ametsa, Txanbolin, Egapedanbor, M^a Rivier, Urdanbor, Centro Extremeño, Gabiltza eta Ostargi, Cohen, Flattered Frogs Massacre, Aiurri-Errroitz, Iñistorra, Poxta Zahar, Jostaleku Adarra, Eguzki eta Izurde.



Kiroldegia atarian Udal ordezkariak eta Adarra, Eguzki eta Izurde taldeetako ordezkariak lankidetzak hitzarmena sinatu zuten egunean.

JON JAUREGI MARGOLARI URNIETARRARI ELKARRIZKETA


Hollywoodeko izarren erretratuak Urnietako margolariaren eskutik

Jon Jauregi *Banaiz* ezizenarekin margotzen ibiltzen den artista urnietarra da. Donostiako Zinemaldiak antolatutako erakusketarako aukeratu zuten eta bere artelanak ikusgai izan dira Donostiako

HUB aretoan. Sanmielen atarian, Urnietako pintura lehiaketan herriko artista onenaren saria lortu zuen Xabier Leteren erretratuarekin.



Urnietarrak Woody Allen edota Benicio del Toro Hollywoodeko izarren erretratuak margotu ditu.



Orain dela urte eta erdi ingurutik, margo artean ezin gelditu dabilela aitortu du Jauregik.

Aurtengo Zinemaldiaren erakusketak egiteko hautatu zintuzten. Zer moduzkoa izan da esperientzia?

Jon Jauregi. Oso ona! Nahiz eta ekitaldi xume bat izan den, Zinemaldiak eskaintzen dituen ekitaldi ezberdinen artean egoitea garrantzitsua izan da, dudarik gabe. Gainera, Zinemaldiak oihartzun izugarria du bai hemen eta baita atzerrian ere; beraz, bere hedabideen ikusgarritasuna jarri du nire eskura eta egiten dudana jendeari helarazteko modu bikaina izan da.

Zinea modu ezberdinetan irudikatu daiteke, baina zuk aktore eta zuzendarien erretratuak egin dituzu. Zergatik?

J.J. Bestela ere, gehienbat, erretratuak margotzen ditudalako. Hala ere, esango nuke Zinemaldiak beti izan duela mitomania puntu hori, eta zineak, orokorrean, beti izan du mitoak sortzeko erraztasun berezi bat. Izan ere, zineman ez dira garrantzitsuak pelikulak soilik, pertsonaiek ere (aktoreek, zuzendariak etab.) badute bere pisu eta erakargarritasuna ikusleagoarentzat. Mitoak eta ikuslearen ametsak bat egiten dute zinearen baitan, eta zentzu horretan, oso ondo enkajatu dute nire koadroek erakusketak honetan.

Jim Jarmusch, David Bowie, Woody Allen... Zeren arabera aukeratu dituzu?

J.J. Denetik egon da. Batzuk eginak nituen, beste batzuk, ordea, aurtengo ekitaldiari oso loturikoak izan dira: Denzel Washington eta Benicio del Tororenak sarituak izan direlako, Alex Angulo eta Nestor Basterretxearenak aurten omenaldia egiten zitzaielako... Baina, batez ere, begiradan bilatzen dut erretratu bat egiteko motibazioa, eta aktoreen artean oso erraza da begirada indartsuak aurkitzea.

Guztira 14 artelan egin dituzu. Zenbat denbora suposatzen du horrek?


J.J. Ez nuke jakingo zehazki denbora neurtzen. Baina azken hiru asteetan ordu asko egin ditut margotzen. Erronka handia izan da, izan ere, lan gehienak hiru astetan eginikoak dira eta gehiegi pentsatu gabe margotu behar izan ditut. Dena den, horrek lanei freskotasun berezi bat ematen die. Konturatu naiz, askotan, intuizioaren askatasunak gidatuta, garbiago heltzen zarela irudikatu nahi duzun pertsonaren benetako izaera islatzera.

Zer esan dizu jendeak? Nola sentitu zara?

J.J. Orain arteko kritikak oso

“Begiradan bilatzen dut erretratu bategiteko motibazioa, eta aktoreen artean oso erraza da begirada indartsuak aurkitzea”

onak izan dira. Nire lanak eza gutzen zituztenek, ordenagailu edo sakelekoaren pantailan ikusita zeuzkaten soilik, eta koadroak aurrez aurre ikustea izugarri gustatu zaie. Gainera, tamaina handikoak dira gehienak, eta jendeari harridura puntu bat sortzen diete. Gertutik, gainera, testura ñabar durak ikusi daitezke, eta horrek erakargarritasuna ematen dio obrari.



Xabier Leteren erretratuaren argazkia, Urnietako pintura lehiaketan.

Erakusketak honen bidez, zure ize-na nazioartean ezagutzera emateko aukera izan duzu. Hori zuretzat garrantzitsua izango da, ezta?

J.J. Dudarik gabe. Ez dakit ziurtasunez oraindik zein izan den benetako oihartzuna, baina gutxitan izango dut tamaina honetako ekitaldi batean muturra sartzeko aukera.

Noiz hasi zinen margotzen? Nolatan?

J.J. Txikitatik izan dudana afizioa da. Gaztaroan musika munduan sartu nintzen burubelarri eta alde batera utzi nuen, nire alabak margotzen hasi ziren arte. Beraiek margotzen ikusteak lokartuta nuen sena berriro piztu zidan, eta ordutik, orain dela urte eta erdi ingurutik, ezin gelditu nabil margo artean.

Zein da zure estiloa?

J.J. Ezin dut nire burua definitu, baina momentuz nahiko figuratiboa da nire estiloa. Erretratuak egiten oso gustura sentitzen naiz. Egiten ditut noiz behinka abstrakzioarako saiakerak, baina bide luzea dut aurretik egiteke nire estilo propioa eraikitzeko. Badago zer-bait, baina muturrera eraman behar ditut gauzak estilo propio hori neureganatzeko.

“Zinemaldiak beti izan du mitomania puntu hori, eta zineak, orokorrean, beti izan du mitoak sortzeko erraztasun berezia”

Zer da pinturaren bidez bilatzen duzuna? Zergatik margotzen duzu?

J.J. Haurtzaroan nork ez ditu margoak esku artean eduki? Nire kasuan, margotzen nuen bitartean, beste dimentsio batera egiten nuen bidaia. Mundu berri magiko bat eraikitzea ahalbidetzen zidaten margoak. Ez-denbora eta ez-leku den mundu magiko bat. Gaur, sentazio berbera berreskuratzea dut helburu. Leku misteriotsu horretara bidaiatzen dut margotzen dudanean.

Zein proiektu aurreikusten dituzu etorkizunerako?

J.J. Ezer garbirik ez. Margo-tzen jarraituko dut; ikasten jarraitu nahi dut. Gero eta denbora gehiago emango dut bide berriak irekitzeko eta, agian, denborarekin, lortuko dut estilo propioago bat. Orduan saiatuko naiz muturra plaza garrantzitsuagotan sartzen...

Momentuz, bideaz, prozesuaz gozatu nahi dut; ez da eta gutxi!

ANTOLAKETA BIKAINA XOXOKAKO JAIETAN

Xoxoka, herri kirolen gotorlekua

Aparteko giroan ospatu dira Xoxokako jaiak, eguraldia lagun. Igan-dean auzotarren arteko ohiko herri kirol lehiak eta sagardo dastaketak amaiera eman zieten jaiak.

Zoriontzekoa da Xoxokako jai batzordea aspalditxotik egiten ari den lana, egundokoa da eta. Urtez urte lortzen baitute eredugarri izatea.



Auzotarren arteko herri kirol desafioa giro ederrean igaro zen. Mattin eta Emailtz gaztetxoek ere parte hartu zuten helduekin batera.

Xabier Lasa

Lana gogotik egin dute, beste behin ere. Ekitaldiz beteriko bost eguneko programa osatuz, eta ahalegin ekonomikoa eginez. Karpa jartzearen erabakiarekin ere asmatu dutela esan behar da, nahiz eta horrek aurrekontua handitzea eragin.

Ez da meritu makala aurrekontuan zulorik ez egitea lortzea. Neurri handi batean oreka ekonomiko hori auzotarren ekarpenei, Udaleko dirulaguntzari eta autofinantzazioari esker lortzen da. Programa erakargarria osatzea lortu dute, gainera, auzotar gehienak eta Urnieta eta eskualdeko herritar asko jai gunera erakartzea lortuz.

Nekazal giroko auzoa da, eta jatorri horri eusten dio batez ere euskal tradizioari lotutako ekitaldiak antolatuz: bertsolaritza, dantza, herri kirolak, trikitixa eta erromeria, sagardo dastaketa...

Batzordeak batez ere herri kirolekin egiten du egundoko ahalegina. Gure-gureak diren kirolak, gure arbasoen baserriko jarduna nahiz aisialdia erakusten dutenak, baina erakunde publikoetatik hasi eta komunikabideekin jarraituz behar bezalako bultzada jasotzen



Auzotar gehienek jaiak gozatzeko, bakan batzuk lana egin behar izaten dute.



Julen Gabirondo eta Mikel Garaialde auzotarrak, laguntzaileak alboan zituztela.

ez dutenak; belaunaldi berrientzat ere ez dira oso gogoko egiten, egia esanda. Euskal Herrian ozta-ozta iraunbizi duten kirolak dira horiek. Arlo

horretan, nekez topatuko dugu Euskal Herrian herri kirolak Xoxokak bezainbeste zaintzen dituen auzo edo herririk. Aurtengoa ere ez da salbuespena



Bizikleta proba Xoxokako plazan jarri zuten karpa azpian.



Xoxokako eskolako hamaiketakoan Aritz Mujikak eta Mikel Artolak abestu zuten.

izan eta kirolari ugari jarri dituzte lehian, ikuskizuna eta emozioa nahi adina eskainiz.

Azpimarragarria ere bada antolatzaile edo kolaboratzaile gisa

dabilen gazte taldea. Antolaketan belaunaldi aldaketa ondo baino hobeto joan dela dirudi. Jai batzordeari eta auzokideei, bejondeizuela!

FILMA URRIKO AZKEN ASTEBURUAN ESKAINIKO DUTE BASTERON

Gotzon Huizi, aktore lanetan Lasa eta Zabala filman

Gotzon Huizik Lasa eta Zabala filmean parte hartu du, apaizaren papera antzetzuz. Beste hainbat pelikuletan ere ikus daiteke figurante gisa.

Ez da antzezlea, baina jendaurreko musikaria denez (atabalaria, abeslaria...) plaza gizonaren dohainak baliagarri izan zaizkio kame-
ra aurrean mugitzeko.

Zein izan da zure papera Lasa eta Zabala filmean?

Gotzon Huizi: Apaizarena egin dut, hilerriko gertakizun fama-tu hartako eszenatan. Bi egun pasa genituen errodajea, baina gero bigarren batzuetan baizik ez naiz ateratzen. Hori-
xe da figurantearen patua.

Ezagun egin zara, komunikabi-deetan makina bat alditan at- era zaituzte...

G.H.: Bai, harrigarria da prentsak daukan indarra, edo behintzat filma honek prentsari eragin dion interesa. Edo morboa! Orain, lagun batzuk, kalean, "iepa, apaiza!" esanez agurtzen naute txantxetan. Errodajea bertan, batzuk sinetsita zeuden ni benetako apaiza nintzela..., Hura grabatzen ginela, zuzendariak prentsa gonbidatu zuen, filmaren promoziori begira. ETB, Antena 3 eta Tele5 telebista kateak, eta euskal kazetariak nahiz Madrilgo prentsa eskuindarra ere agertu ziren. Denak Tolosako hilerriera eraman zituzten. Han, eta ohar-tu gabe, makina bat argazki eta iruditzen protagonismoa hartzea egokitu zitzaidan.

Pasadizoak izango dituzu kontatzeko...

G.H.: Makina bat! Hainbeste pertsona, hainbeste kamera, hainbeste plano... Mundu bat da film baten errodajea, mila detaile daude lotu behar direnak. Bat aipatuko dizut. Aurreneko eszenan, bi hilkutxak hilerrian atzekoz aurre sartzen hasi ziren. Nik txikitatik aita-
rekin ikasia neukan, kristau errituari jarraituz, hildakoa hankak aurretik dituela sartu behar izaten dela elizan edo hilerrian, eta baita atera ere! Horrenbestez, filmako lan taldea akats horretaz ohartarazi nuen. Berehala zuzendu zuten; gainerakoan, betirako gazapo barregarri horietako batekin geratuko zen filma.

Ikusi al duzu filma? Zer iruditu zaizu?



Urriaren 25etik 27ra Lasa eta Zabala Basteron eskainiko dute. Bertan apaizaren paperean agertuko da Huizi.

G.H.: Ezin izan nuen ikusi Donostian. Jende ugari ateratzen ari da zinemetatik pelikula ona ikusi izanaren sententzioarekin. Nire emaztea horien artean; begiak ixtea eragin zioten Intxaurrondoko eszena latzak salbu, dena gustatu zitzaion. Basteron ikusteko irrikatan nago.

Tolosako bi egun horietan oso errodaje-talde serioa aurkitu nuen. Pablo Malo zuzendariak nahikoa adierazi du: ez

duela zintzoen eta gaiztoen pelikula manikeo bat egin nahi izan, errealean gertatu zen biolentzia guztiaren %30 besterik ez duela kontatu, eta, gertakizun izugarri bat ahalik eta objektibotasunik handiena-
rekin kontatu nahi izan duela.

Bi datu esanguratsu aipatuko nituzke, Malorengan konfiantza edukitzeko: bata, Intxaurrondoko bi guardia zibil gaztek pelikularekin kolaboratu izana; eta bestea, alderdi

politikoek filma modu zitalean kritikatu ez izana, terrorismoaren edo abertzaletasunaren apologia dela salatuz.

Ikuslea, nahitaez, zinemara aurreiritziekin doala esan da...

G.H.: Jakina hala izango dela. Ezinbestekoa da osagai politikoa igartzea. Orain sei bat urte, ezinezkoa zatekeen horrela pelikula bat. Baina gure herriko historiaren zati bat kontatzen du; ehunka heriotza izan da azken urteetan, eta Lasa eta Zabala bi gehiago dira. Gertakizun hori ere jakin, gureganatu eta zabaldu egin behar dugu. Nik uste euskal gizartea prestatuta dagoela halako historiak ikusteko pantailan, eta hala izan dadin eskatzen ari da.

Izan ere, elkarbizitzarako premiazkoa da geure historia onartzea. Azken hamarkadatan nork bere munduan egin duena aitortzea egokitzen zaigu. Beste kontua da politikoez zer esaten edo egiten duten, horiek beren logika baitaukat.

"Tolosako hilerriko gertaera grabatzeko bi egun horietan oso errodaje-talde serioa aurkitu nuen"

Zein beste pelikuletan hartu duzu parte?

G.H.: Azkenekoa, Zinemaldian oso kritika onak jaso dituen: Loreak. Bestela, Gernika bajo las armas eta Amaren eskuak. Horiez gain, telesailak aipatuko nituzke: Oscar Terolekin sei esketx, Tele 5k Juan Carlos monarkaren inguruan egindako seriea, Bi eta Bat telesaila...

Nola sartu zinen mundu horretan?

G.H.: Txiripaz! Orain hiru urte langabezian geratu nintzen eta casting agentzia batean izena eman nuen. Argazki album batean sartzen dute zure irudia, eta ondoren pelikula zehatz baterako behar duten profilararen arabera, deitzen zaituzte ala ez. Nire kasuan, berehala jaso nuen gonbitea, Gernikako 36ko pelikulan parte hartzeko.

Zer behar da figurantea izateko?

G.H.: Denbora eduki behar da, eta pazientzia, hasteko eta behin. Argi eduki behar baituzu bizpahiru segunduko eszena bat grabatzeko, igual egun oso bat beharko duzula egon mahai batean eserita. Eta deskuidatzen bazara, ezertarako ere ez! Amaren eskuak filmean zera gertatu zitzaidan, esaterako: bi ordu pasa nituen eszenatxo bat grabatzen; taberna batean sartu, txanponak aldatu eta zigarro paketea hartu makinatik, horixe zen egin behar nuena. Bada, gero azken muntaiaren kendu egin zuten.

Eta batez ere, honako printzipioa ez duzu ahaztu behar: ez zarela aktorea! Figurante gisa zenbat eta gehiago agertu iruditzen, orduan eta lan gutxiago etorkizunean. Izan ere, zure irudia erreta geratzen baita esaldi bat esan orduko.

[Elkarriketa osoa: aiurri.com](mailto:Elkarriketa.osoa:aiurri.com)



Tolosako hilerrian eszena grabatzeko prestaketa lanetan. Apaiz lanetan agertzen den Gotzon Huizi. Bere ezkerreko aldean agindua ematen Pablo Malo filmaren zuzendariari.

1974an jaiotakoek afaria deitu dute azaroaren 22an


1974. urtean jaiotakoen artean taldetxo bat osatu da, azaroaren 22an urte berekoak mahai beraren bueltan biltzeko asmotan. Izena emateko kontu-korrontea zabaldu dute, eta bertan afarira joateko asmoa duenak 40 euroko diru-sarrera egin behar du, bere izen abizenak zehaztuz. Izena emateko epea azaroaren 14an amaituko da. Gaur gaurkoz

antolatzaileek 19:00etan Txitibarren ipini nahi dute hitzordua, eta afaria Oianumen izango da gaueko 21:00etan hasita.

Informazio gehiago nahi duenak ondorengo helbide elektronikora idatz dezake: 1974andoain@gmail.com.

Kontu-korrontearen zenbakia, 40 euroko diru-sarrera egiteko, honakoa da: 2095 5063 30 9114282898.

Hedabideen arteko lankidetzak hitzarmena



Urko Aristi eta Maite Iturbe lankidetzak hitzarmenaren aurkezpen-ekitaldian.

EiTBk eta Aiurri kide den Tokikom-ek elkarlarnarako akordioa sinatu dute. Emankorra izango den bide baten hasiera baino ez da EiTBko zuzendari nagusi Maite Iturbek eta Tokikom-eko presidente Urko Aristik izenpetutakoa, bi aldeek esanetan. Bi erakundeek arteko hartu emana zertan gauzatuko den zehazteko prozesu bat finkatu dute, pixkanaka-pixkanaka komunikabideetan atzemango dena.

Lehendik ere Euskadi Irratiarekin antzeko ituna sinatu

tua zuten, eta horri esker, besteak beste, astelehenero 'Mezularia' saioaren barruan Tokikom tertulia entzun daiteke. Elkarlan horrek fruitu berriak eman ditu. Dagoeneko ETB1eko 'Azpimarra' saioan Tokikom osatzen duten komunikabide desberdinetako kideek hartzen dute parte.

Buruntzaldeko tokiko hedabide guztiak Tokikom-eko kide dira, hots, Usurbilgo Noaua!, Lasarteko Txintxarri, Hernaniko Kronika eta Andoain-Urrietako Aiurri.

“Motxian Eby” lehiaketa

DBHko ikasleen euskarazko abestien parodia onena sari-tuko da Buruntzaldea eta Oarsoaldeko eskualdeek antolatutako “Motxian Eby” esketx lehiaketaren bitartez.

Lehiaketako parte-hartzaileek euskaraz abesten duen musika talde baten edo euskarazko abesti baten parodia egin beharko dute, letra aldatuz eta abestiaren edota taldearen arabera moztortuta eta karakterizatuta.

Irabazleak bi eskualdetako DBHko 4. mailako ikasleek erabakiko dituzte. Hala,

Oarsoaldeko bideoen artean onena, Buruntzaldeko ikasleek aukeratuko dute, eta alderantziz. Eskualde bakoitzeko bi sari egongo dira: bideo onenak 300 euro jasoko ditu eta bigarrenak 200. Gainera, publikoaren saria ere izango da. Bozka gehien jasotzen duenak 50 euroko saria irabaziko du.

Lehiatuko diren esketxak, ikusgai jarriko dituzte www.motxianeby.com webgunean. Lan irabazleak azaroaren 24an jakinaraziko dituzte.

Andoaingo Udalak ikas materialaren aurkezpena egin zuen

Andoaingo 400 urteak, DBHkoen ikasgai berria



2015. urtean Andoain herriak herri izaera lortu izanaren 400. urteurrena ospatuko du, urte osoan zehar luzatuko diren ekitaldien bitartez. Iazko udaberrian batzorde bat lanean hasi zen eta pixkanaka 2015ean burutuko diren hainbat ekitaldi ezagutarazten ari dira.

Aurreko astean “Andoaindarrak 1615-2015” DBHko ikasleei zuzenduriko ikas materiala-



Ugartemendia zinegotzia, Herreras argitaletxearen ordezkaria eta Agirre Udalen teknikaria.

ren aurkezpena egin zuten. Oinarrian Susana Trutxuelo historialariak urteurrenerako Udalen artxiboak argitaratuko duen lana erabili dute, beste aditu batzuren ekarpenekin osatu dutena. Herriko hiru ikastetxeren esku egongo da DVD formatuan jasotako ikas materialak irakasteko lana. Atal ezberdine-

tan sailkatu dute: “Andoain herriaren jatorria”, “Andoain: herriak eta unibertsitatea” edota “Desanexioa, independentzia juridikorantz”.

Udaleko eta ikastetxeetako ordezkariak Ondartez enpresak ikas-materiala prestatzen egindako lanarekin pozik agertu ziren agerraldian.

Zabor edukiontzia birziklatzera!



“Zabor edukiontzia birziklatzera! gerra dantza baten bidez gerra aldarrikatu diogu, gerra ideologikoa”.

Postontzia Zero Zabor Ingurumen Babeserako elkarteak

“Zabor edukiontzia birziklatzera!” dugu Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkartek hilabete hauetan aurrera eramango duen kanpainaren leloa. Zabor edukiontzia guda dantza baten bidez gerra aldarrikatu diogu, gerra ideologikoa.

Eta gaur [urriak 10, ostirala], berriz, guda honi segida eman eta lehenengo zigilatzea burutu dugu Andoaingo kaleetan.

Herriarrok betebeharrak luze jardun dugu, birziklatzeko betebeharrak. Baina bada garaia, agintarien betebeharrak hitz egiteko ere.

Agintariak, gizon-emaumeon eskubideak bermatzeko betebeharrak dugu. Agintariak ezin dugu diru publikoa zabor sortzeko bitartekoetan xahutu, guztion dirua guztion kalterako erabiliaz. Hainbat agintaririk, tamalez, gizon-emaumeok ingurune osasungarri batean bizitzeko dugun eskubidea urratzen jarraitzen dugu oraindik.

Hortaz, zabor edukiontzia hori egoiteari utzi behar diote. Zabor edukiontzia hortik kendu behar ditugu, hobe esanda, kendu behar dituzue. Zabor edukiontzia kentzen denean gaikako bilketan jauzi ikusgarria ematen dela

irakatsi digu esperientziak. Guk ez dizuegu nola egin esango, soilik zuten betebeharrak bete dezazuela eskatzen dugu, gaikako bilketa eraginkor bat bermatzeko, arazoa sortzeko bitartekoak kentzeko eta gizon-emaumeon eskubideak zain ditzazuela.

Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkartetik “Zabor edukiontzia birziklatzera” kanpainaren bitartez Andoaingo udal ordezkariak, besoak gurutzatuz, gera ez daitezkeen eskatzen dizuegu, eta, gaur irudikatutako zigilatzeaz gogoratu zuten ardura eta betebeharrak dela zabor edukiontzia zigilatzea, kaleetatik ezabatzea.

Horrenbestez, argi eta ozen diogu: *Zaborra / zarama / zakarra Zabor edukiontzia birziklatzera!”*.

ESKUALDEKO UDALERRIEN AGERRALDIA

Buruntzaldeko Garapen Agentzia sortzeko proposamena abian da

Azken astean Buruntzaldean sortze prozesuan dagoen eskualdeko garapen agentzia hizpide izan dute eskualdeko Udal agintariek eta oposizioan diren EAJ-PNV eta PSE-EE alderdiek.

Asteartean eskualdeko alkateek deitu zuten agerraldian iragarri zuten, garapen agentzia sortzeko proposamenak udaletxe guztietan aurkeztuko dituzte datozen asteetan.

Eskualdeko ekonomia aro berri batean sar daitekeelako, garrantzia handikotzat jo zuten udal ordezkariak eskualdeko garapen agentziaren proposamena aurrera bidean jartzea, “azken urte hauetan elkarrekin lanean aritzeko baldintza egokiak sortzeko ahaleginaren fruitua da aurkezten ari garena. Aurrerabide handiak lortu ditugulako duela bi urte hasitako ibilbidearen ondorioz”. Alkateen agerraldian Lasarteko eta Hernaniko alkateak izan ziren bozeramaileak. Hernaniko alkate Itxaspek gogora ekarri zuenez, agentzia martxan jartzeko protokoloa 2012ko maiatzean sinatu zen eskualdeko udaletxe guztien parte hartzearekin. Bide horretan eskualdeko enplegu plana osatu zen, eta era berean eskualdeko egoera sozioekonomikoaren diagnostikoa egin zen. Mahai sektorialak sortu dira geroztik, besteak beste, enpresa handi eta ertainekin, sindikatuekin eta lanbide heziketako



Andoaingo, Astigarragako, Hernaniko, Lasarteko eta Usurbilgo alkateek parte hartu zuten agerraldian.

ikastetxeekin. “Helduz eta haziz joan den lana izan da. Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzak kudeatzea eta horrekin batera Udalek eskualdeko enpleguari zuzendutako milioi bat eurotik gora-

ko ekarpena egitea. Datu hauek azpiegitura baten beharra azaltzen dute, gaur egun dagoeneko egiten den lana kudeatzeko eta etorkizunera begira proiektu handiagoak prestatzeko, adibidez, inguruko enpresetan hobe-

kuntzak eta berrikuntzak egiteko, gure baliabideak nazioartekotzeko, etab”. Aurretik maiz adierazi den bezala, Gipuzkoan horrelako agentziarik ez duen eskualde bakarra Buruntzaldekoa dela gogorarazi zuten.

EAJ-PNVko eskualdeko kargudunen agerraldia



Urriaren 9an Buruntzaldeko EAJ-PNVren ordezkariak agerraldia egin zuten Lasarte-Orian hilabetetan prestatzen aritu diren garapen agentziaren proiektua aurkezteko. Lasarte-Oriako bozeramaile Estitxu Alkortak adierazi bezala, erakunde berri honek Andoaingo, Urnieta, Hernani, La-

sarte-Oria, Usurbil eta Astigarragan lan egingo luke, Udal horiei sinergiak lortu eta zerbitzuak partekatu eta hobetzeko aukera emanez. Jeltzaleen ustean hiru esparru nagusitan egingo luke lan erakundeak: ekonomiaren sustapertzea, enpleguaren sustapena eta turismoa.

PSE-EEko eskualdeko kargudunen agerraldia



Urriaren 15ean Buruntzaldeko PSE-EEko ordezkariak agerraldia egin zuten Andoaingoan, gai bera hizpide hartuta. Agerraldia kritika egiteko baliatu zuten. Batetik, EAJ-PNVri, aurreko astean egin zuen agerraldian garapen agentziaren proiektua “bera balitz bezala” aurkeztu zuelako. Bestetik,

EH Bildu koalizioa gogor kritikatu zuen. Agentziarako proposatu duten izaera kritikatu zuten, “izaera pribatukoa” izango dela salatuz. Euren hitzetan, “Bilduren txiringito bilakatuko da”. Agentziako ordezkariak aukeratzeko moduarekin ere desadostasuna agertu zuten.

ANDOAIN

EAJ-PNVk urriaren 9an egin zuen agerraldian Andoaingo herriaren egoerari buruz zera adierazi zuen, “nabarmendu behar da agentzia gaur eratuko balitz Andoaingo kanpoan geldituko litzatekeela Udalak zor handia daukalako”. Adierazpen horren inguruan galdera egin zitzaizkien eskualdeko alkateei. **Ana Carrere** Andoaingo alkateak hartu zuen hitza, adierazpen hori gezurtatzeko: “Andoaingo herriak ezingo luke elkarrekin sortu baina behin sortuta, parte hartzaile izateko eskaera egin dezake. Unean uneko finantziario arazoak izateak ez du esan nahi etorkizunean Andoaingo Udalak sar ez daitekeenik”. **Luis Intxauxpe** Hernaniko alkateak erantzuna argibide gehiagorekin osatu zuen, “prozesu honetan Andoaingo egoera aztertu dugu. Abokatu baten aholkularitzapean egitasmoa teknikoki aztertzen gabilta. Une honetan bizi duen egoera ekonomikoagatik Andoaingo Udalak ezin du parte hartu Udalaz gaindiko beste edozein erakundetan. Estatutuaren irtenbide bat bilatu zaio. Sortzean izateko kideak izango ginateke Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalderriak. Andoaingo bazkide kolaboratzailea izango litzateke. Egoera ekonomiko hori gainditzeko duenean eta legez posible duenean, izateko bazkide izatera pasako da. Bitartean, garapen agentziak Andoaingo Udalarekin hitzarmen bidez lan egingo luke. Denok argi baitugu sei udalderriok osatzen dugula Buruntzaldea, eta sortzera goazenak sei herriei erantzun behar diola”.

Istripu larria Txertotan



Joseba Jauregi Txertotako (Goiburu auzoa) semea oso larri eraman zuten Donostia-ko ospitalera asteartean -urriak14-, etxe horretako tei-
latutik erori eta gero. Ezbe-
hrra arratsaldeko 16:30etan

gertatu zen, teilatura konpon-
keta lanak egitera igo eta berta-
tik lurrera erori zenean. Nahiko
larriak dira 47 urteko herriki-
deak jasan dituen zauriak; bu-
ruhezurrean batik bat. Bizkar
hezurra ere kaltetuta dauka.

Foru Aldundiak eskualdeko bus zerbitzua osatuko du



Hainbat kontzesio edo ema-
kida berri behar direla
aprobetxatuta, 2015eko urte
hasieran Gipuzkoako Foru
Aldundiko Mugikortasuna
eta Bide Azpiegiturak sailak
bus zerbitzua handitu eta
hobetu nahi du. Horretara-
ko, herri arteko bus zerbi-
tzuan Aldundiak %36 gehia-
go inbertituko duela eta 57
lanpostu sortuko dituela ira-
garri du. Larraitz Ugarte di-
putatuak agerraldia deitu
zuen hobekuntza horien be-
rri emateko. Erabakiak urte-
beteko parte-hartze proze-
sua onduz hartu dira, Gipuzkoako 56 herritan egin
direnak. Aldaketa orokor na-
gusiak:

- Ordu egien luzapena: 06:00-06:30ean hasi eta 22:00-22:30ean bukatu.

- Ospitaleak: Gaua pasatzera joan behar duten pertsonak edo afaria eman ondoren etxera itzuli behar dutenak bidaia autobusez egiteko aukera izango dute.
- Herrietako jaiak: Herrieta-ko jai egutegi berezia egin-
go da egun horietan zerbi-
tzua indartzeko, batez ere
gauetan.
- Gauetako zerbitzua: Hain-
bat zerbitzu hobetu dira,
ostiral iluntzetan adibidez.
- Garraio aldaketak: Saio be-
rezia egin da aldaketak ko-
ordinatzeko Eusko Trene-
ko, Renfeko nahiz Bizkai-
buseko zerbitzuekin.

ALDAKETAK BURUNTZALDEAN

- Eskualdeko herrien arteko lotura areagotu egingo da.
- Ospitalera lotura: Donos-
tiako ospitalearekin lotura
hobetuko dute.
- Unibertsitatera lotura: An-
doain-Urnieta-Hernanitik
areagotu egingo dira.
Gauetako zerbitzuak: astebu-
ruean bereziki.

ESKUALDEKO BILERA

Urriak 22, asteazkena.
Biteri. 18:30. Hernani.

“GAZTEOK HARTU HITZA!” PARTE HARTZE PROZESUA



16-29 urte bitarteko parte hartze prozesuaren bigarren bilera Gazteok egin zen, aurreko asteartean. Hainbat proposamen landu zituzten, bertaratu zirenen artean herriaren diagnosia egin eta gero. Kronika partehartu.wordpress.com blogean.

Hizkuntza gutxituen normalizaziorako baliagarria izango da

Garabide elkartearekin hitzarmena

A ndoaingo Udalak hitzarmena sinatu du Garabidearekin, gara-
pen bidean dauden herrietako hizkuntzen normalizazioan laguntzeko. Elkar-
tearen lana hizkuntza gutxitue-
kiko eragileekin proiektuak hitzar-
tu eta aurrera eramatea da, eta
horretan lagunduko dio Udalak.
Zehazki, Mexikoko Nauat herria-
ren eta Euskal Herriaren arteko
esperientzia trukean oinarrituko
da aipatu hitzarmena.

Ana Carrereren ustez, he-
rrien arteko kooperazioa ezin-
bestekoa da mundu justuago
eta parekatuago bat lortzeko
bidean. Honenbestez, truke ho-
ri gauzatu nahi du, Euskal He-
rriko esperientzia, ezagutza eta
balioak garapen bidean dauden
herrietara eramanez eta han ja-
sotakoa, berriz, hona ekarri.

Hiru helburu nagusi ditu hit-
zarmenak. Batetik, hizkuntza
komunitate minorizatuarekin lan-
kideztza bideratzea, euskara eta
euskal kulturaren garapen espe-
rientzien trukean oinarrituta.



Esperientzien elkarbanaketan oinarrituriko lankidetzak eskaintzen du Garabidek.

Bestetik, eragile horiekin lanki-
detza proiektuak garatzea, hiz-
kuntzaren, kulturaren, nortasu-
naren eta, batez ere, hezkuntza-
ren alorrean indar berezia jar-
riz. Azkenik, euskararen eta
euskal kulturaren garapenean
lagunduko dio Udalak. Hori guztia lortzeko, Udalak 14.100 euro eskainiko dizkio urtebeteko epean. Trukean, Mon-

dragon Unibertsitateak eskain-
tzen duen Aditu tituluaren bi-
dez, ikasleek udazkenean egiten
duten egonaldia baliatuz, ando-
aindarrengan hizkuntza minori-
zatuarekin sentsibiltateak pizteko
Udalarekin adostutako ekimene-
an parte hartzeko konpromisoa
hartzen du Garabidek.

Garabide kooperazio era be-
rria egiten duen elkartea da, es-
perientzien elkarbanaketan oi-
narrituriko lankidetzak hain zu-
zen.

www.garabide.eus



3.
FASEAwww.garraioahobetzen.net

Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua



Informazio gehiago:
www.garraioahobetzen.net

GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZU BERRIA EZAGUTU NAHI?

4.000 herritar baino gehiagok egindako ekarpenak kontuan hartuta,
Gipuzkoako Foru Aldundiak autobus zerbitzu berria jarriko du martxan 2015ean.
Zerbitzu berriak ezagutzeko, zatoz zure eskualdean egingo den bilerara:

**Urriak 22, Hernanin,
Biteri kultur etxean, 18:30ean**



KIROL ALBISTEAK

“Aukerarik ezean, urtebete egingo dut afizionatuetan”



Mikel Iturria Euskadi Fundazioko txirrindulariaren etorkizuna argitu gabe dago oraindik.

Mikel Iturria urnietarrak txirrindulari aparta dela erakutsi du azken urteetan eta Euskadi Fundazioarekin profesionaletan aritu ostean, bere ibilbidearen amaierara iristen ari dela dirudi. Txirrindulartzaren egoera larriaren adibide argienetakoa da Mikel Iturriarena.

2013tik profesionaletan zabiltz Euskadi Fundazioarekin. Zer moduzko esperientzia izan da? Mikel Iturria. Esperientzia oso ona izan da. Izan ere, txikitatik izan dudana ametsa da profesionaletan aritzea, eta zorionez, bi urtez aritu naiz goi mailako txirrindularitzan.

Zer moduz sentitu zara taldean? M.I. Aldaketa handia izan zen afizionatutik profesionaletara pasatzea, baina gustura ematen duzun pausoa denez, gogor egiten diozu zure buruari eta, nire kasuan behintzat, ez nuen uste horren erraz moldatuko nintzenik. Aldaketa handia da; kilometro gehiago lasterketetan, lan gehiago, erritmo biziagoa, txirrindularen maila altuagoa da...

Dezenteko aldaketa da, baina oso ondo moldatu nintzen

eta gustura sentitu naiz taldean.

Zure ametsa bete zenuen. Orain, ordea, taldea desagertzera doa... M.I. Euskaltel izatetik, Euskadi Fundazioa izatera igaro zen eta, tamalez, bere bidea amaitu dela ematen du. Ez dirudi aurrerantzean zerbait aterako denik...

Pertsonalki nola bizi duzu taldearen desagertzea? M.I. Faktore askok eragiten dute, batez ere, krisiak. Dirurik ez dago eta taldea ez dago momentu onenean. Beraz, onartzea besterik ez zaigu gertatzen. Pena handia ematen du.

Beraz, zure aukera afizionatuetara itzultzea edo atzerriko talderen batekin profesionaletan jarraitzea dira, ezta? M.I. Bai, nire helburua profesionaletan jarraitzea da, baina kanpoan begiratzen ibili naiz eta zaila dago kontua. Atzerriko taldeekin zerbait adosten saiatu naiz, baina oraingoz denek ezetz esan didate. Oraindik begiratzen jarraituko dut, baina zortetik izaten ez badut, azken aukera bezala afizionatuetara itzuliko naiz. Urtebete afizionatu mailan egingo dut.


“Afizionatuetan urtebete egingo nuke, bizikletaren munduari agur esateko modu bat izango litzateke. Hurrengo urtean egoera berean banago, ikasketei ekingo diet”

Beraz, atzerriko taldeekin aukerarik ez baduzu, urtebete horren ostean utzi egingo al duzu? M.I. Azkar da oraindik hori esateko, baina ziurrenik bai. Profesionaletarako aukerarik ezean, afizionatuetan urtebete egingo nuke, baina bizikletaren munduari agur esateko modu bat izango litzateke. Hurrengo urtean egoera berean banago, ikasketei ekingo diet.

Zein asmo duzu, beraz, etorkizunerako? M.I. IVEF ikastea gustatuko litzaidake, kirolen mundua gustuko dudalako. Txirrindulartzak egoera berdinean jarraitzen badu, hurrengo urtean jarduera fisikoa eta kirolaren zientzien fakultatera joatekotan nago. Agian, etorkizun batean berriro ere txirrindulartzaren mundura itzuliko naiz; entrenatzaile bezala edo..., auskalo.

Mikel Esnaola EBA Ligan

Danimarkan aurreko denboraldia igaro ondoren, Urnietako Mikel Esnaola saskibaloia jokalaria Ferrol taldean ari da EBA ligan jokatzeko. Bitxikeria modura Felix Banobre izango da taldeko entrenatzailea, eta hura ere aurreko denboraldian Danimarkan entrenatzaile lanetan aritua zen.



Donostiako Hiru Hondartzak



Udazkena iristearekin batera herri lasterketak areagotuz doaz. Asteburuan Donostiako

Hiru Hondartzak lasterketan, eskualdeko kirolari ugari irten ziren. Argazkiak flickr gunean.

Alonso Euskadi fundazioan



Euskadi EDP 23 urte azpiko txirrindularitza taldea osatzen ari dira eta bertan Mikel Alonso Andoaingo Txirrindulari Eskolako urnietarra ari

tuko da. Irailean egin zuten agerraldian Mikel Alonso ageri da Miguel Madariagaren ondoan. Gerrikagoitia izango da entrenatzailea.

Ganbara saski taldea

Denboraldi berria hastera doa, hiru talderekin: Infantilak, kadetea eta senior mailakoa. Aurtengo babesleak Ganbara,

Txitibar, Lixone eta Txalaka dira. Asteburuan Andoain: **Ganbara Infantilak-Easo 1** Larunbata, 09:00. Allurralde.

Preferente mailako futbola

Preferentea. 4. jardunaldia:

Euskalduna 2-1 Allerru
Urnietak 2-2 Mariño

Sailkapena:

1. Urnietak 10
7. Euskalduna 6

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi
Kultur Buzkara

INISTORRA

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritz

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINO UDALA

URNIETAKO UDALA

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Izarne
Olano, Joxeba Lizeaga
eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta
Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu

txikia:
diseinua@aiurri.com
www.aiurri.com
Lege Gordailua: SS-1078/04
ISSN: 1698-4870
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea,

banaketa
arduraduna:
Garbiñe
Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzaleak:

Mikel Arregi
(Andoain), Gaizka
Bernardo (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

URRIAREN 16TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Antzerkia

Andoain, Bastero

- **Hiru**, komedia Txaloren eskutik. Euskaraz. 21:30. Auditorioa. Urriak 17, ostirala.

Zinema

Andoain, Bastero

- **“Torrente 5”**. 22:00. Urriak 18, larunbata. 19:30. Urriak 19, igandea. 19:30, 22:00. Urriak 20, astelehena.

Urnietan, Sarobe

- **“Aviones 2: Equipo de rescate”**. 16:00, 18:30. Urriak 19, igandea.

Ikastaroak

Andoain

- **Jabetze eskola: Zer egin eraso sexisten aurrean?** Irakaslea: Silvia Arevalo. Hizkuntza: Euskara. Datak: Azaroak 4, 11, 18, 28 eta abenduak 5 eta 12. 18:30-20:00. Urriak 19, igandea. Matrikula: 10 euro, Ataria. Izen-ematea: Urriak 31.

Erakusketa

Andoain, Bastero

- Patxi Laskarainen eskutik, azaroaren 8ra arte. Astelehenera ostiralera: 18:00-20:00. Larunbatetan: 10:30-13:30 / 18:00-20:30.

Literatura

Andoain, Bastero

- Udal Liburutegiak antolatuta, Ur Apalategiren “Fikzioaren izterrak” liburuari buruzko solasaldia. Izena emateko aukera zabalik: 943 300 615. liburutegia@andoain.org Urriak 28, asteartea.

Pailazoak

Andoain, Bastero

- Poxpolo eta konpainiaren ikuskizun berriena. 17:00. Auditorioa. Urriak 19, igandea.

Irteera

Andoain, Ludoteka

- **“Larunbatean euskaraz”** ekimena dagoeneko martxan da. Azaroaren 22rako “Irri-sarriland” gunera irteera antolatu dute. Kirola eta abentura uztartzeko aukera proposa da: Tirolinak, ohe elastikoak, egurrezko gaztelua, etab... Izena emateko: 943 592 181.

Lehiaketak

Andoain

- **Andoaindarrak izar** talentu lehiaketa, Gazte Lokalaren eskutik. Musika, antzerkia, bakarrizketak, malabarrrak... 12-18 urte bitarteko artistei zuzenduta. Izena emateko epea: azaroak 14, ostirala. Hautaketa: azaroak 21. Finala: azaroak 28, ostirala. Informazio gehiago: 943 300 746. andoain@gaztelokala.com.

Urnietan

- **Beldur Barik** EAEko instituzioek elkarlanean bultzatuta indarkeria sexista saihesteko gazteei zuzendutako programa da. 12-26 urteko gazteek parte har dezakete, banaka edo taldeka, bideoak aurkeztuz. Informazio gehiago: gazteinformazio@urnieta.org 943 333 973.

Bazkaria

Andoain

- 1974an jaioetakoek deituta. Argibide gehiago Aiurri honetan, 6. orrialdean. Azaroak 22, larunbata.

Gazte Eguna

Andoain

- **“Gazte eguna”**, *Irunberri ez itxi* lelopean. Egun osorako txartela salgai Irunberrin, 15 eurotan. Egitaraua: 10:00 Gosaria Irunberrin. 12:30 Manifa Juanita Alkain plazatik. 14:00 Bazkaria Kale Nagusian. 17:00 Karaokea Irunberrin. 20:30 Afaria Gaztetxean. 21:00 Bideo emanaldia. 22:00 Ingo al deu? eta DJa Gaztetxean. Urriak 18, larunbata.

Musika

Andoain

- MKT, Madeleine eta Sofa Zarautz eta Donostia aldeko taldeak zuzenean. 22:30. Gaztetxea. Urriak 17, ostirala.
- Bitartean taldearen Bidean CD berriaren aurkezpena. 20:00. Bastero. Urriak 24, ostirala.

Magia

Urnietan, Sarobe

- Txan magoa, “mundu magikoa”. Sarrera: 3,5 euro. 12:00. Urriak 26, igandea.

Irteera

Andoain

- Santa Krutz erretirodunen elkarteak deituta, Aiegi-Lizarra inguruetara irteera. Hamaiketako, bisitaldia eta bazkaria. Txartelak salgai elkartearen bertan. 09:00 Olgain. Urriak 25, larunbata.

Kanpaina

Andoain

- Katxalin elkarteak bularreko minbiziaren aurkako kanpaina burutuko du, herriko toki ezberdinetan. Urriak 18, larunbata.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Eñaut Sistiaga
Etxeberririk 9 urte beteko ditu urriaren 19an. Muxu asko jaso etxeko enpartetik, eta ondo ondo pasa zure egunean.

ANDOAIN

ZORIONAK



Noak 4 urte beteko ditu datorren urriaren 22an! Muxu pottolo bat Markel, aita eta amaren partetik. Ondo pasa zure printzesa.

URNIETA

ZORIONAK



Maddik urriaren 23an 5 urte beteko ditu. Zorionak, Maddi!! Egun onona pasa!! Muxu handi bat etxeko enpartetik!!

ANDOAIN


ZORIONAK



Urriaren 13an gure **Ainhoa** 21 urteko beteko ditu. Aupa pottoli! Dakizun bezala ospatu. Muxuak zure etxetik! Makaez kutarrak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Urriaren 19an **Eñaut** 9 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu asko etxeko enpartetik. Oso ondo ospatu. Txapeldu!!!!

URNIETA



ZORION AGURRAK

Aiurri

diseinua@aiurri.com

“Joxe Mari Olazabalen bidea” sari banaketa



Gizarte mailan eta elkartasunean nabarmendu diren pertsonak saritzeko, Andoingo Caritas taldea “Joxe Mari Olazabalen bidea” sari banaketa ekitaldiaren edizio berria antolatzen hasi da. Ekitaldia abenduaren 11n ospatuko da, eta bertan ibilbide oparoa erakutsi duen herrikidea edo elkartea sarituko dute.

Andoaindarrak proposamenak egiteko aukera dute, datorren azaroaren 3ra bitarte. Proposamenak Caritaseko buzoian utz daitezke, eta bestela e-postaz egiteko aukera dago. Epaimahaia Caritas, Udaleko Gizarte Zerbitzuak eta ikastetxeetako ordezkariak osatuko dute.

caritasandoain@yahoo.com

DATORREN AIURRI ASTEKARIA URRIAREN 16AN ARGITARATUKO DA